

ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE BARAÑÁIN CELEBRADA EN FECHA 26 DE FEBRERO DE 2026	BARAÑAINGO UDALAK 2026KO OTSAILAREN 26AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA
--	--

Concejales y Concejales asistentes / Bertaratutako zinegotziak:

Begoña Aceituno Zunzarren	(UPN)
Javier Andújar Alcolea	(UPN)
Pablo Juan Arcelus Cavallero	(UPN)
José Luis Ruiz Martínez	(UPN)
Fátima Sesma Vallés	(UPN)
Emiliano Garín Arriaga	(EH Bildu)
Ioseba Jimenez Muñoz	(EH Bildu)
Ana Leache Arrese	(EH Bildu)
Alberto López Iborra	(EH Bildu)
María José Anaut Couso	(PSN)
Roberto Andión Martínez	(PSN)
Julen Enériz del Valle	(PSN)
Rosa León Justicia	(PSN)
Ane María Sánchez Jiménez	(Contigo Zurekin)
Flor González Alonso	(Geroa Bai)
Jesús Emilio Sánchez Díaz	(PP)

Presidenta / Lehendakaria:

María Lecumberri Bonilla (UPN)

Secretario accidental / Behin-behineko idazkaria:

D. Guillermo Ruano Ampudia

DILIGENCIA.- Para hacer constar que esta acta se ha aprobado sin modificaciones en la sesión del Pleno, celebrada el día 26 de marzo de 2026. Se extiende en 10 hojas numeradas del J166717 a J166726 de lo que yo, la secretaria, doy fe

Barañáin, a 8 de abril de 2026

Órgano/ Organoa:

Pleno / Osoko Bilkura

Sesión / Bilkura:

Ordinaria / Ohikoa

Lugar / Tokia :

Casa Consistorial de Barañain / Barañaingo Udaletxea

Fecha / Eguna:

26 de febrero de 2026 / 2026ko otsailaren 26a

Hora de comienzo /

Hasiera ordua: 10:00

EGINBIDEA.- Jasota gera dadin honako akta hau onetsi zuela Osoko Bilkurak, aldaketarik gabe, 2026ko martxoaren 26an egindako bilkuran. Aktak 10 orrialde ditu, neronek sinatuta eta zigilatutakoak, J166717tik, J166726ra zenbakituta.

Barañain, 2026ko apirilaren 8a.

Guillermo Ruano Ampudia
El secretario accidental / Behin-behineko idazkaria

Antes de comenzar a tratar los temas del orden del día de la sesión, la señora alcaldesa comunica que la corporación guardará un minuto de silencio en repulsa ante el asesinato por violencia machista ocurrido el 20 de febrero en Sarriguren.

Saioaren aztergaiak lantzen hasi aurretik, alkate andreak esan du udalbatzak minutu bateko isilunea egingo duela otsailaren 20an Sarrigurenen indarkeria matxistarengatik izandako hilketa gaitzesteko.

Minuto de silencio / Isiluneko minutua (00:00:07)

<u>PRIMERO.- APROBACIÓN, SI PROCEDE DEL ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE FECHA 29 DE ENERO DE 2026 Y DEL ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA DE FECHA 11 DE FEBRERO DE 2026.</u>	<u>LEHENENGOA.- HALA BADAGOKIO, 2026KO URTARRILAREN 29KO OHIKO BILKURAREN AKTA ETA 2026KO OTSAILAREN 11KO EZOHIKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA.</u>
--	--

Se prescinde de la lectura del acta de la sesión ordinaria de fecha 29 de enero de 2026 y del acta de la sesión extraordinaria de fecha 11 de febrero de 2026, por disponer las señoras y señores corporativos de fotocopias de las mismas entregadas como documentación adjunta a la convocatoria de la presente sesión.

Ez dira irakurri 2026ko urtarrilaren 29ko ohiko bilkurako akta eta 2026ko otsailaren 11ko ezohiko bilkuraren akta, udalbatzako kide jaun-andreek akta horien fotokopiak baitituzte, bilkura honetarako deialdiarekin batera aurkeztutako agiri gisa.

En cumplimiento de las previsiones contenidas en el artículo 91 del Real Decreto 2.568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y de Régimen Jurídico de las Entidades Locales, por la Presidencia se pregunta a los asistentes si desean formular observaciones al acta distribuida en la convocatoria.

Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuaren 91. artikuluan jasotakoa betez, Lehendakaritzak bertaratutakoei galdetu die ea deialdiarekin batera bidalitako aktari oharrik egin nahi dioten.

Presentación y Debate / Aurkezpena eta eztabaida (00:01:25)

El acta de la sesión ordinaria de fecha 29 de enero de 2026 se aprueba por unanimidad.

2026ko urtarrilaren 29ko ohiko bilkuraren akta aho batez onartu da.

El acta de la sesión extraordinaria de fecha 11 de febrero de 2026 se aprueba por unanimidad.

2026ko otsailaren 11ko ezohiko bilkuraren akta aho batez onartu da.

Votación / Bozketa (00:01:42)

I.- PARTE RESOLUTIVA	I.- ERABAKIEN ATALA
----------------------	---------------------

SEGUNDO.- APROBACIÓN DEL ESCRITO DE ALEGACIONES SOBRE RECURSO DE ALZADA FRENTE A LA APROBACIÓN DEFINITIVA DE LA PLANTILLA ORGÁNICA PARA EL AÑO 2025 PRESENTADO POR DOÑA LUCÍA SESMA VALLÉS EN REPRESENTACIÓN DE COMISIONES OBRERAS DE NAVARRA- C.C.O.O. (RA 25-2191)	BIGARRENA. LUCÍA SESMA VALLÉS ANDREAK, NAFARROAKO LANGILE KOMISIOAK -CCOO- SINDIKATUAREN IZENEAN, AURKEZTUTAKO 2025. URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOAREN BEHIN BETIKO ONESPENAREN AURKAKO GORA JOTZEKO ERREKURTSOARI BURUZKO ALEGAZIO-IDAZKIA ONARTZEA (RA 25-2191).
---	---

La señora alcaldesa procede a la lectura y explicación de la propuesta de acuerdo y seguidamente abre el turno de intervenciones de los grupos políticos municipales.

Alkateak akordio-proposamena irakurri eta azaldu du, eta, ondoren, udaleko talde politikoen parte-hartze txanda ireki du.

Lectura y debate / Irakurketa eta eztabaida (00:02:09)

Debatido el asunto se procede a votar la propuesta de acuerdo, que se aprueba al obtener 11 votos a favor (grupos municipales UPN, PSN-PSOE y PP), 5 votos en contra (grupos municipales EH Bildu y Contigo Zurekin) y 1 abstención 1 abstención (grupo municipal Geroa Bai).

Gaia eztabaidatu eta gero proposamen akordioa onartu da. Botoak izan dira: aldekoak 11 (UPN, PSN-PSOE eta PP udal taldeak), kontrakoak 5 (EH Bildu eta Contigo Zurekin udal taldeak) eta abstentzio 1 (Geroa Bai udal taldea).

Votación / Bozketa (00:14:34)

Habiéndose presentado Recurso de Alzada por doña Lucía Sesma Vallés en representación de Federación de Servicios a la Ciudadanía de Comisiones Obreras (CCOO), frente a la aprobación definitiva de la plantilla orgánica para el año 2025, y habiéndose requerido por providencia de la señora Presidenta del Tribunal Administrativo de Navarra el expediente administrativo correspondiente, así como la remisión de escrito de alegaciones frente al mencionado recurso, se elabora escrito de alegaciones.

Se presenta para su aprobación por el Pleno el escrito de alegaciones detallado anteriormente y la remisión del mismo al Tribunal Administrativo de Navarra.

Conforme al dictamen favorable de la Comisión Informativa de Hacienda, Personal y Especial de Cuentas de la sesión celebrada el 19 de febrero de 2026, **SE ACUERDA**:

Primero. - Aprobar el escrito de alegaciones realizado desde Alcaldía presentado ante el Tribunal Administrativo de Navarra dentro del Recurso de Alzada núm. 25-2191.

Segundo. - Remitir el acuerdo del Pleno al Tribunal Administrativo de Navarra.

Tercero. - Trasladar el acuerdo a las áreas de Asesoría Jurídica y Recursos Humanos.

<u>TERCERO.- APROBACIÓN DEL ESCRITO DE ALEGACIONES SOBRE RECURSO DE ALZADA FRENTE A LA APROBACIÓN DEFINITIVA DE LA PLANTILLA ORGÁNICA PARA EL AÑO 2025 PRESENTADO POR DELEGADAS Y DELEGADOS DE PERSONAL DE LOS SINDICATOS CCOO Y LAB.</u> (RA 25-2332)	<u>BIGARRENA. CCOO ETA LAB SINDIKATUEN LANGILEEN ORDEZKARIEK AURKEZTUTAKO 2025. URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOAREN BEHIN BETIKO ONESPENAREN AURKAKO GORA JOTZEKO ERREKURTSOARI BURUZKO ALEGAZIO-IDAZKIA ONARTZEA.</u> (RA 25-2332).
---	---

La señora alcaldesa procede a la lectura y explicación de la propuesta de acuerdo y seguidamente abre el turno de intervenciones de los grupos políticos municipales.

Alkateak akordio-proposamena irakurri eta azaldu du, eta, ondoren, udaleko talde politikoen parte-hartze txanda ireki du.

Lectura y debate / Irakurketa eta eztabaida (00:14:59)

Debatido el asunto se procede a votar la propuesta de acuerdo, que se aprueba al obtener 11 votos a favor (grupos municipales UPN, PSN-PSOE y PP), 5 votos en contra (grupos municipales EH Bildu y Contigo Zurekin) y 1 abstención (grupo municipal Geroa Bai).

Gaia eztabaidatu eta gero proposamen akordioa onartu da. Botoak izan dira: aldekoak 11 (UPN, PSN-PSOE eta PP udal taldeak), kontrakoak 5 (EH Bildu eta Contigo Zurekin udal taldeak) eta abstentzio 1 (Geroa Bai udal taldea).

Votación / Bozketa (00:33:36)

Habiéndose presentado Recurso de Alzada por don Gorka Arregui Ramos, don Ion Arregui Ramos, don José Javier Lusarreta Elía, doña Aitziber Pérez de Cárcamo Herrán, doña Edurne Irigoyen Michitorea y don Patxi Iriarte Uztarrotz, delegadas y delegados de personal de los sindicatos CCOO y LAB, frente a la aprobación definitiva de la plantilla orgánica para el año 2025, y habiéndose requerido por providencia de la señora Presidenta del Tribunal Administrativo de Navarra el expediente administrativo correspondiente, así como la remisión de escrito de alegaciones frente al mencionado recurso, se elabora escrito de alegaciones.

Se presenta para su aprobación por el Pleno el escrito de alegaciones detallado anteriormente y la remisión del mismo al Tribunal Administrativo de Navarra.

Conforme al dictamen favorable de la Comisión Informativa de Hacienda, Personal y Especial de Cuentas de la sesión celebrada el 19 de febrero de 2026, **SE ACUERDA:**

Primero. - Aprobar el escrito de alegaciones realizado desde Alcaldía presentado ante el Tribunal Administrativo de Navarra dentro del Recurso de Alzada núm. 25-2332.

Segundo. - Remitir el acuerdo del Pleno al Tribunal Administrativo de Navarra.

Tercero. - Trasladar el acuerdo a las áreas de Asesoría Jurídica y Recursos Humanos.

<p>CUARTO.- APROBACIÓN INICIAL DEL PRESUPUESTO GENERAL ÚNICO DEL AYUNTAMIENTO DE BARAÑÁIN PARA EL AÑO 2026 Y BASES DE EJECUCIÓN DEL MISMO.</p>	<p>LAUGARRENA. 2026. URTERAKO BARAÑAINGO UDALAREN AURREKONTU OROKOR BAKARRA ETA HONEN GAUZATZEKO OINARRIAK, HASIERA BATEAN, ONESTEA.</p>
---	---

La señora alcaldesa procede a la lectura y explicación de la propuesta de acuerdo y seguidamente abre el turno de intervenciones de los grupos políticos municipales.

Alkateak akordio-proposamena irakurri eta azaldu du, eta, ondoren, udaleko talde politikoen parte-hartze txanda ireki du.

Lectura y debate / Irakurketa eta eztabaida (00:33:56)

Visto proyecto de presupuesto general único del Ayuntamiento de Barañáin para el año 2026 elaborado por la Alcaldía en cumplimiento de las determinaciones contenidas en la Ley Foral de Haciendas Locales de Navarra y comprensivo del presupuesto del Ayuntamiento, Escuela de Música Luís Morondo y del Servicio Municipal Lagunak, que se incorpora al presente acuerdo junto con sus bases de ejecución.

Atendido que dicho proyecto ha sido informado preceptivamente, dándose así cumplimiento a las prescripciones contenidas en la normativa legal vigente, por Secretaría y por la Intervención del Ayuntamiento de Barañáin.

Resultando dictamen emitido por la Comisión informativa de Hacienda y Personal y considerando las prescripciones establecidas en los artículos 201 y 202 de la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, reguladora de las Haciendas Locales de Navarra y 22.2.e) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local que atribuye la competencia para la aprobación del Presupuesto al Pleno de la Corporación, se presenta para su aprobación la siguiente **PROPUESTA DE ACUERDO:**

Primero.- Aprobar inicialmente el Presupuesto General Único del Ayuntamiento de Barañáin para el ejercicio 2026 comprensivo del presupuesto del Ayuntamiento, de la Escuela de Música Luís Morondo y del Servicio Municipal Lagunak y las Bases de Ejecución del mismo.

Segundo.- Someter el presupuesto general único y las bases de Ejecución del mismo a exposición pública en Secretaría Municipal por periodo de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el Tablón de Edictos y sede electrónica del Ayuntamiento, a fin de que las personas interesadas puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.

Tercero.- Si durante el periodo de exposición pública no se formulan reclamaciones, el Presupuesto General único y las bases de ejecución se entenderán definitivamente aprobados, debiendo procederse a su publicación en el Boletín Oficial de Navarra.

Cuarto.-Trasladar el presente acuerdo a Secretaría e Intervención del Ayuntamiento de Barañáin al objeto de que se proceda a dar impulso y celeridad al expediente y notificarlo a la Escuela Municipal de Música Luis Morondo y al Servicio Municipal Lagunak.

Debatido el asunto se procede a votar la propuesta de acuerdo, que no se aprueba al obtener 7 votos a favor (grupos políticos UPN y PP), 9 votos en contra (grupos municipales EH Bildu, PSN-PSOE y Contigo Zurekin) y 1 abstención (grupo municipal Geroa Bai).

Gaia eztabaidatu eta gero proposamen akordioa ez da onartu. Botoak izan dira: aldekoak 7 (UPN eta PP udal taldeak), kontrakoak 9 (EH Bildu, PSN-PSOE eta Contigo Zurekin udal taldeak) eta abstentzio 1 (Geroa Bai udal taldea).

Votación / Bozketa (01:27:47)

QUINTO.- APROBACIÓN INICIAL DE LA PLANTILLA ORGÁNICA DEL AYUNTAMIENTO DE BARAÑÁIN Y DE SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS PARA EL AÑO 2026.	BOSGARRENA. 2026. URTERAKO BARAÑAINGO UDALAREN ETA BERE ORGANISMO AUTONOMOEN PLANTILLA ORGANIKOA, HASIERA BATEAN, ONESTEA.
--	---

El punto se retira del orden del día al no haberse aprobado el presupuesto para el año 2026..

Puntua aztergaietatik kendu da, aurrekontua ez baita onartu.

Retirada del punto por no aprobación del presupuesto / Puntua aztergaietatik kendu da, aurrekontua ez baita onartu (01:28:25)

SEXTO.- APROBACIÓN INICIAL DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE EL INCREMENTO DE VALOR DE LOS TERRENOS DE NATURALEZA URBANA.	<u>SEIGARRENA.</u> HIRI-LURREN BALIO- GEHIKUNTZAREN GAINKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA- ORDENANTZAREN HASIERAKO ONESPENA.
---	--

La señora alcaldesa procede a la lectura y explicación de la propuesta de acuerdo y seguidamente abre el turno de intervenciones de los grupos políticos municipales.

Alkateak akordio-proposamena irakurri eta azaldu du, eta, ondoren, udaleko talde politikoen parte-hartze txanda ireki du.

Lectura y debate / Irakurketa eta eztabaida (01:28:31)

Durante el debate de este punto se ausenta don Roberto Andión Martínez, concejal del grupo municipal PSN-PSOE.

Puntu hau eztabaidatu bitartean, Roberto Andion Martínez jauna, PSN-PSOE udal taldeko zinegotzia, bilkuratik atera da.

Debatido el asunto se procede a votar la propuesta de acuerdo, que se aprueba al obtener 8 votos a favor (grupos políticos UPN, Geroa Bai y PP), y 8 abstenciones (grupos políticos, EH Bildu, PSN-PSOE y Contigo Zurekin).

Gaia eztabaidatu eta gero proposamen akordioa onartu da. Botoak izan dira: aldeko 8 (UPN, Geroa Bai eta PP udal taldeak) (EH Bildu eta Contigo Zurekin udal taldeak) eta 8 abstentzio (EH Bildu, PSN-PSOE eta Contigo Zurekin udal taldeak).

Votación / Bozketa (01:33:37)

Conforme al dictamen favorable de la Comisión Informativa de Hacienda, Personal y Especial de Cuentas de la sesión celebrada el 19 de febrero de 2026, **SE ACUERDA:**

Primero.- Aprobar inicialmente la ordenanza fiscal reguladora del impuesto sobre el incremento de valor de los terrenos de naturaleza urbana.

Segundo.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 325.1.b) de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de Administración Local de Navarra, el presente acuerdo se somete a información pública, mediante anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la web municipal, por plazo de treinta días hábiles, al objeto de que las

personas interesadas puedan examinar el expediente y formular reclamaciones, reparos u observaciones con indicación de que el mismo pasará a ser definitivo en el caso de que durante el trámite de exposición pública no se formulen reclamaciones reparos u observaciones, sin perjuicio de la publicación del texto íntegro en el Boletín Oficial de Navarra.

Tercero.- Notificar el presente acuerdo al Área de Intervención e incorporarlo al expediente a los efectos oportunos.

SÉPTIMO.- MOCIÓN PRESENTADA POR LOS GRUPOS MUNICIPALES UPN, EH BILDU, PSN-PSOE, CONTIGO ZUREKIN Y PP SOLICITANDO LA MANCOMUNACIÓN DEL SERVICIO PÚBLICO DE ALQUILER DE BICICLETAS A TRAVÉS DE LA MANCOMUNIDAD DE LA COMPARCA DE PAMPLONA (MPC).	ZAZPIGARRENA.- UPN, EH BILDU, PSN-PSOE, CONTIGO ZUREKIN ETA PP UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, BIZIKLETA ALOKAIJUAREN ZERBITZU PUBLIKOA IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAREN (IM) BITARTEZ MANKOMUNATZEKO.
---	---

La señora alcaldesa da cuenta de la moción presentada por los grupos políticos UPN, EH Bildu, PSN-PSOE, Contigo Zurekin y PP solicitando la mancomunación del servicio público de alquiler de bicicletas a través de la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona (MPC).

UPN, EH Bildu, PSN-PSOE, Contigo Zurekin eta PP talde politikoek aurkeztutako mozioaren berri eman du alkateak, bizikleta alokairuaren zerbitzu publikoa Iruñerriko Mankomunitatearen (IM) bitartez mankomunatzeko eskatzen duena.

Presentación de la moción / Mozioaren aurkezpena (01:33:56)

Durante el debate de este punto se reincorpora a la sesión don Roberto Andión Martínez, concejal del grupo municipal PSN-PSOE.

Puntu hau eztabaidatu bitartean, Roberto Andion Martínez jauna, PSN-PSOE udal taldeko zinegotzia, bilkurara itzuli da.

A continuación, doña María José Anaut Couso, portavoz del grupo municipal PSN-PSOE, don Jesús Emilio Sánchez Díaz, portavoz del grupo municipal PP, doña Fátima Sesma Vallés, portavoz del grupo municipal del grupo municipal UPN, don Emiliano Garín Arriaga, concejal del grupo municipal EH Bildu

Ondoren, María José Anaut Couso andreak, PSN-PSOE udal taldeko bozeramailea, Jesús Emilio Sánchez Díaz jaunak, PP udal taldeko bozeramailea, Fátima Sesma Vallés andreak, UPN udal-taldearen bozeramailea, Emiliano Garin Arriaga jaunak, EH Bildu udal taldeko zinegotzia, eta Ane

y doña Ane Sánchez Jiménez, portavoz del grupo municipal Contigo Zurekin procede a dar lectura al texto de la moción y seguidamente se procede al debate de la misma.

Sánchez Jiménez andreak, Contigho Zurekin udal taldeko bozeramailea, mozioaren testua irakurri dute eta, ondoren, mozia eztabaidatu dute.

Lectura y debate / *Irakurketa eta eztabaida (01:33:56)*

Finalizado el debate, se procede a efectuar la votación de la moción, que se aprueba por unanimidad.

Gaia eztabaidatu ondoren mozia bozkatu eta aho batez onartu da.

Votación / *Bozketa (01:53:18)*

MOCIÓN PARA LA MANCOMUNACIÓN DEL SERVICIO PÚBLICO DE ALQUILER DE BICICLETAS A TRAVÉS DE LA MANCOMUNIDAD DE LA COMARCA DE PAMPLONA (MCP)

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La movilidad sostenible constituye uno de los principales retos de las ciudades europeas en el siglo XXI. La lucha contra el cambio climático, la reducción de emisiones contaminantes, la mejora de la calidad del aire y la recuperación del espacio público para las personas obligan a las administraciones públicas a impulsar políticas activas de transporte limpio, accesible y eficiente.

En este contexto, el servicio público de alquiler de bicicletas se ha consolidado como una herramienta estratégica para promover la movilidad sostenible, facilitar la intermodalidad con el transporte público y ofrecer alternativas reales al vehículo privado motorizado.

Hasta la fecha, el servicio de bicicleta pública en Pamplona ha sido prestado

MOZIOA, BIZIKLETA ALOKAIUAREN ZERBITZU PUBLIKOA IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAREN (IM) BITARTEZ MANKOMUNATZEKO

ZIOEN AZALPENA

Mugikortasun jasangarria XXI. mendeko Europako hirien erronka nagusietako bat da. Klimaldaketaren aurkako borrokak, emisio kutsatzaileen murrizketak, airearen kalitatearen hobekuntzak eta espazio publikoa pertsonentzat berreskuratzeak administrazio publikoak behartzen ditu garraio garbi, eskuragarri eta eraginkorren aldeko politika aktiboak sustatzera.

Testuinguru honetan, bizikleta alokairuaren zerbitzu publikoa tresna estrategiko gisa sendotu da mugikortasun jasangarria sustatzeko, garraio publikoarekiko intermodalitatea errazteko eta motorrezko ibilgailu pribatuari benetako alternatibak eskaintzeko.

Orain arte, bizikleta publikoaren zerbitzua Iruñeko Udalak zuzenean eman du, esleitutako

directamente por el Ayuntamiento mediante una empresa concesionaria. Sin embargo, la situación actual derivada del incumplimiento contractual por parte de la adjudicataria y la previsible rescisión del contrato abre un nuevo escenario administrativo y jurídico que debe ser aprovechado como una oportunidad para mejorar estructuralmente el servicio.

Paralelamente, la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona (MCP) aprobó la modificación de sus estatutos para asumir en el futuro la prestación de este servicio a nivel comarcal, inicialmente prevista para el año 2029, coincidiendo con la finalización del contrato vigente. Este cambio normativo responde a una visión estratégica: entender la movilidad ciclista como un servicio supramunicipal, conectado al transporte urbano comarcal y coherente con la realidad metropolitana de la ciudadanía.

La finalización anticipada del contrato municipal permite adelantar dicho objetivo y avanzar hacia un modelo más eficiente, integrado y justo territorialmente.

La realidad diaria de la Comarca de Pamplona demuestra que los desplazamientos no entienden de límites administrativos: miles de personas viven en un municipio, trabajan en otro, estudian en un tercero y realizan su ocio en distintos puntos del área metropolitana. Mantener servicios de movilidad fragmentados genera desigualdades, duplicidades, mayor coste público y menor eficiencia.

La gestión mancomunada del servicio público de bicicletas aportaría importantes ventajas:

- Visión metropolitana real: un único sistema de bicicleta pública para toda la

empresa baten bidez. Hala ere, esleipendunak kontratua ez betetzeagatik sortu den egoerak eta kontratua aurreikusitako moduan eteteak agertoki administratibo eta juridiko berri bat ireki dute, eta hori zerbitzua egituraz hobetzeko aukera gisa baliatu behar da.

Bestalde, Iruñerriko Mankomunitateak (IM) bere estatutuak aldatzea onartu zuen etorkizunean zerbitzu hori eskualde mailan bere gain hartzeko; hasiera batean, 2029rako aurreikusia zegoen, indarrean dagoen kontratua amaitzearekin batera. Aldaketa horrek ikuspegi estrategiko bati erantzuten dio: bizikletaren bidezko mugikortasuna udalaz gaindiko zerbitzu gisa ulertzea, eskualdeko hiri garraioarekin konektatua eta herritarren errealitate metropolitanoarekin koherentea.

Udal kontratua aurretik amaitzeak aukera ematen du helburu hori aurreratzeko eta eredu eraginkorrago, integratuago eta lurralde ikuspegitik bidezkoago baterantz aurrera egiteko.

Iruñerriko eguneroko errealitateak erakusten du eguneroko bidaiak ez direla administrazio mugen arabera: milaka pertsona udalerrri batean bizi dira, beste batean lan egiten dute, hirugarren batean ikasten dute eta aisialdia eremu metropolitarrako hainbat tokitan egiten dute. Mugikortasun zerbitzu zatituak mantentzeak desberdintasunak, duplizidadeak, kostu publiko handiagoa eta eraginkortasun txikiagoa dakar.

Bizikleta zerbitzu publikoaren kudeaketa mankomunatuak abantaila garrantzitsuak ekarriko lituzke:

- Benetako ikuspegi metropolitarra: bizikleta publikoaren sistema bakarra eskualde

comarca, evitando fronteras administrativas artificiales.

- Integración tarifaria y operativa con el transporte urbano comarcal (TUC), facilitando la intermodalidad.
- Mayor eficiencia económica mediante economías de escala en compra, mantenimiento, tecnología y gestión.
- Mayor calidad del servicio, con planificación técnica unificada y criterios homogéneos.
- Extensión del servicio a municipios actualmente sin cobertura, garantizando igualdad de oportunidades en movilidad sostenible.
- Mejor planificación de infraestructuras ciclistas, coordinada con la red comarcal de transporte.
- Refuerzo del carácter público del servicio, bajo una entidad pública especializada en movilidad.

La MCP es, además, la entidad pública con mayor experiencia técnica en gestión de transporte público en Navarra, con capacidad organizativa, tecnológica y operativa acreditada durante décadas en la gestión del transporte urbano comarcal.

Por todo ello, el nuevo escenario obliga a actuar con responsabilidad institucional y visión estratégica para no reproducir un modelo transitorio que perpetúe la fragmentación del servicio durante varios años más.

La rescisión contractual no debe conducir a una nueva licitación municipal aislada, sino a la Implantación definitiva del modelo metropolitano ya previsto, adelantando su puesta en marcha.

osoarentzat, muga administratibo artifizialak saihestuz.

- Tarifa eta funtzionamenduaren integrazioa eskualdeko hiri garraioarekin intermodalitatea erraztuz.
- Eraginkortasun ekonomiko handiagoa, erosketa, mantentze lan, teknologia eta kudeaketan eskala ekonomiak baliatuz.
- Zerbitzuaren kalitate handiagoa, plangintza tekniko bateratuarekin eta irizpide homogeneousekin.
- Gaur egun estaldurarik ez duten udalerrietara zerbitzua zabaltzea, mugikortasun jasangarrian aukera berdintasuna bermatuz.
- Bizikleta azpiegituren plangintza hobea, eskualdeko garraio sarearekin koordinatuta.
- Zerbitzuaren izaera publikoa indartzea, mugikortasunean espezializatutako erakunde publiko baten bidez.

IM da, gainera, Nafarroan garraio publikoaren kudeaketan esperientzia tekniko handiena duen erakunde publikoa, eta hamarkadetan zehar eskualdeko hiri garraioa kudeatzen lortutako antolakuntzarako gaitasuna eta gaitasun teknologiko eta operatiboa du.

Horregatik guztiagatik, egoera berriak erantzukizun instituzionalarekin eta ikuspegi estrategikoarekin jardutera behartzen du, zerbitzuaren zatiketa urte batzuetan luzatuko lukeen behin behineko eredia ez errepikatzeke.

Kontratua eteteak ez du ekarri behar udal lizitazio isolatu berri bat, baizik eta aurreikusita dagoen eredu metropolitarraren behin betiko ezarpena, haren abiapuntua aurreratuz.

SE ACUERDA:

1. El Ayuntamiento de Barañain, manifiesta su voluntad política de que el servicio público de alquiler de bicicletas pase a prestarse mediante gestión mancomunada a través de la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona (MCP).
2. El ayuntamiento de Barañain, Insta a la MCP a Iniciar de forma inmediata los trabajos técnicos, económicos y jurídicos necesarios para la implantación del servicio comarcal de bicicleta pública con carácter anticipado respecto al calendario inicialmente previsto.
3. El ayuntamiento de Barañain solicita que se Inicie un proceso de coordinación entre el Ayuntamiento de Pamplona, la MCP y el resto de ayuntamientos de la comarca para la implantación progresiva del servicio en todos los municipios adheridos, miembros de la MCP.
4. El ayuntamiento de Barañain, como miembro de la MCP solicita que se evite la aprobación de una nueva concesión municipal de larga duración que dificulte o retrase la implantación del modelo metropolitano.
5. El ayuntamiento de Barañain, Solicita al Gobierno de Navarra su colaboración técnica y financiera para la implantación del sistema comarcal de bicicleta pública, en el marco de las políticas de movilidad sostenible y lucha contra el cambio climático.
6. Dar traslado de la presente moción a todos los ayuntamientos integrantes de la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona, a la propia MCP y al Departamento competente en materia de movilidad del Gobierno de Navarra, y a los medios de comunicación habituales.

La señor alcaldesa, siendo las 11 horas y 55 minutos, comunica que se va a realizar un receso para acudir a la concentración de condena del asesinato del asesinato machista de una mujer y la agresión grave sufrida por otra en Sarriguren.

ADOSTEN DA:

1. Barañaingo Udalak adierazten du borondate politikoa duela bizikleta alokairuaren zerbitzu publikoa Iruñerriko Mankomunitatearen (IM) bidez kudeaketa mankomunatura igaro dadin.
2. Barañaingo Udalak IMri eskatzen dio berehala has ditzala bizikleta publikoaren eskualdeko zerbitzua aurreikusitakoa baino lehen ezartzeko beharrezkoak diren lan tekniko, ekonomiko eta juridikoak.
3. Barañaingo Udalak eskatzen du koordinazio-prozesu bat abiaraztea Pamplonako Udalaren, MCPren eta eskualdeko gainerako udalen artean, zerbitzua pixkanaka MCPko kide diren udalerrri guztietan ezartzeko.
4. Barañaingo Udalak, IMko kide den aldetik, eskatzen du iraupen luzeko udal emakida berri bat ez onartzea, eredu metropolitarraren ezarpena zaildu edo atzeratu dezakeena.
5. Barañaingo Udalak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio lankidetzat tekniko eta finantzarioa, bizikleta publikoaren eskualdeko sistema ezartzeko, mugikortasun jasangarriaren eta klima-aldaketaren aurkako politikak esparruan.
6. Mozio honen berri ematea Iruñerriko Mankomunitateko kide diren udal guztiei, IMri berari, Nafarroako Gobernu mugikortasun arloko departamentu eskudunari eta ohiko komunikabideei.

Alkateak, 11:55ean, jakinarazi du etenaldi bat egingo dutela Sarrigurenen emakume baten hilketa matxista eta beste batek jasandako eraso larria gaitzesteko kontzentrazioa joateko.

Saioa 12:10ean hasi da berriro.

La sesión se reanuda a las 12 horas y 10 minutos.

Receso / Etenaldia (01:53:21)

Don Pablo Arcelus Cavallero y doña Begoña Aceituno Zunzarren concejal y concejala del grupo municipal UPN, no se han reincorporado a la sesión tras el receso.

Pablo Arcelus Cavallero jauna eta Begoña Aceituno Zunzarren andrea, UPN udal-taldearen zinegotziak, ez dira bilkurara itzuli etenaldia bukatu eta gero.

II.- PARTE DE INFORMACIÓN Y CONTROL DE ÓRGANOS DEL AYUNTAMIENTO	II.- UDALEKO ORGANOEN INFORMAZIO ETA KONTROL ATALA
OCTAVO.- DECLARACIÓN INSTITUCIONAL EN RELACIÓN AL DÍA 8 DE MARZO, DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES.	ZORTZIGARRENA.- MARTXOAREN 8an OSPATUKO DEN EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNAREKIN LOTURA DUEN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

Se procede a dar lectura al texto de la Declaración Institucional conjuntamente por parte de todos los grupo municipales.

Udal talde guztiek irakurri dute Adierazpen Instituzionalaren testua.

Lectura de la declaración institucional / Adierazpen instituzionalarena irakurketa (02:06:56)

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL 8M - GRACIAS AL FEMINISMO... HOY PODEMOS SER, ESTAR, DECIR Y DECIDIR

Con motivo del 8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres, las Entidades Locales y Territoriales de Navarra queremos recordar una realidad fundamental: muchos de los derechos y libertades que hoy tenemos asumidos y que forman parte de nuestra vida cotidiana existen gracias a las luchas del movimiento feminista y a la organización colectiva de las mujeres a lo largo de la historia.

En un contexto social en el que el

M8ko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA – FEMINISMOARI ESKER... GAUR IZAN, EGON, ESAN ETA ERABAKI DEZAKEGU

Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Nafarroako Toki eta Lurralde Entitateek ezinbesteko errealitate bat gogorarazi nahi dugu: gaur egun barneratuta ditugun eta gure eguneroko bizitzaren parte diren eskubide eta askatasun asko mugimendu feministaren borrokei eta historian zehar emakumeen antolamendu kolektiboari esker lortu dira.

Diskurtso antifeministen edo

feminismo es cuestionado o deslegitimado mediante discursos reduccionistas o abiertamente antifeministas, se debe reivindicar su papel decisivo en el desarrollo social, la extensión de derechos y el fortalecimiento del sistema democrático. El feminismo no es ajeno a la vida diaria ni una ideología pasajera: es una fuerza histórica que ha transformado la vida de todas las personas, hombres y mujeres, y ha hecho posible el presente en el que vivimos.

A lo largo del último siglo, y no sin resistencias, el feminismo ha impulsado derechos fundamentales que hoy damos por seguros. Gracias a estas luchas, las mujeres lograron el derecho al voto y a la participación política; a la educación en igualdad; al trabajo remunerado, a gestionar el dinero propio y a la autonomía económica; a la libertad de movimiento; al divorcio; y al derecho a decidir sobre el propio cuerpo, incluidos aquí los derechos sexuales y reproductivos. Asimismo, el feminismo ha sido clave para visibilizar y reivindicar el valor social y económico del reparto de los cuidados, sin los cuales no se sostiene la vida.

Ninguno de estos avances fue un regalo ni un proceso espontáneo. Son el resultado de 300 años de fundamentación teórica, reflexión crítica, movilización y la perseverancia de generaciones de mujeres. Sin embargo, hoy proliferan discursos que deslegitiman, minimizan o niegan estas luchas, afirmando que la igualdad ya está conseguida o presentando el feminismo como una amenaza. Estos discursos no solo ignoran la historia, sino que ponen en riesgo derechos conquistados y dificultan el avance hacia una igualdad real y efectiva.

erredukzionisten bidez feminismoa zalantzan jartzen edo deslegitimatzen den testuinguru sozial batean, haren eginkizun erabakigarria aldarrikatu behar da garapen sozialean, eskubideen hedapenean eta sistema demokratikoaren indartzean. Feminismoa ez da eguneroko bizitzatik kanpo geratzen, ezta ideologia iragankor batetik kanpo ere: indar historiko bat da, pertsona guztien bizitza eraldatu duena, gizon zein emakume, eta bizi garen oraina ahalbidetu duena.

Azken mendean zehar, eta ez erresistentziarik gabe, feminismoak funtsezko mugarrak bultzatu ditu, egun zalantzan jartzen ez direnak. Borroka horiei esker, emakumeek boto eskubidea eta parte-hartze politikorako eskubidea lortu zuten; berdintasunean hezteko eskubidea; lan ordaindua, norberaren dirua kudeatzeko eskubidea eta autonomia ekonomikoa; mugitzeko askatasuna; dibortzioa; eta norberaren gorputzari buruz erabakitzeko eskubidea, sexu eta ugalketa eskubideak barne. Era berean, feminismoa funtsezkoa izan da zainketen banaketaren balio soziala eta ekonomikoa ikusarazteko eta aldarrikatzeko, horiek gabe ezin baita bizitza sostengatu.

Aurrerapen horietako bakoitza ez zen ezerezetik heldu, ez ziren egun batetik besterako prozesuak izan. 300 urteko oinarri teorikoaren, hausnarketa kritikoaren, mobilizazioaren eta emakume belaunaldien iraunkortasunaren emaitza dira. Hala ere, borroka horiek deslegitimatzen, minimizatzen edo ukatzen dituzten diskurtsoak ugaritzen ari dira gaur egun, berdintasuna lortuta dagoela esanez edo feminismoa mehatxu gisa aurkeztuz. Diskurtso horiek, historiari ezikusiarrena egiteaz gain, arriskuan jartzen dituzte konkistatutako eskubideak, eta zaildu egiten dute berdintasun erreala eraginkorrerantz aurrera egitea.

Frente a ello, reafirmamos que el feminismo ha sido y sigue siendo un motor de cambio hacia la justicia social, que ha ampliado derechos no solo para las mujeres, sino para el conjunto de la sociedad. Reconocer su valor histórico y su vigencia actual es una responsabilidad institucional y democrática.

Por todo ello, las Entidades Locales y Territoriales firmantes de esta declaración asumimos los siguientes compromisos:

- **Impulsar acciones de sensibilización y comunicación** que pongan en valor los logros históricos del feminismo y su impacto en la vida cotidiana, contribuyendo a una ciudadanía informada y crítica frente a los discursos antifeministas.

- **Incorporar de manera transversal la perspectiva de género** en las políticas públicas locales, garantizando avances reales hacia la igualdad.

- **Reforzar la educación en igualdad y en derechos humanos** como herramienta clave para prevenir desigualdades y violencias, especialmente entre la población más joven, poniendo siempre en valor la teoría e historia feminista.

- **Reconocer y apoyar el trabajo del movimiento feminista y asociativo**, valorando su aportación histórica y actual a la cohesión social, la justicia y la democracia.

Estas acciones contribuirán a construir una Navarra más justa, igualitaria y democrática, comprometida con la defensa y ampliación de los derechos conquistados. Porque si hoy disfrutamos de derechos y libertades, es por la lucha colectiva. El feminismo nos trajo hasta

Horren aurrean, berresten dugu feminismoa justizia sozialerako aldaketaren motorra izan dela eta izaten jarraitzen duela, eta horrek eskubideak ugaritu dituela, ez bakarrik emakumeentzat, baita jendarte osoarentzat ere. Haren balio historikoa eta egungo indarraldia aitortzea erantzukizun instituzional eta demokratikoa da.

Honengatik guztiaengatik, adierazpen hau sinatu dugun toki eta lurralde erakundeok konpromiso hauek hartzen ditugu:

- **Sentsibilizazio eta komunikazio ekintzak bultzatzea**, feminismoaren lorpen historikoei eta horrek eguneroko bizitzan izan duen eraginari balioa emateko, diskurtso antifeministen aurrean herritar informatu eta kritikoak izan gaitezten.

- **Tokiko politika publikoetan genero ikuspegia zeharka txertatzea**, berdintasunerako benetako aurrerapausoak bermatuz.

- **Berdintasunean eta giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza indartzea**, desberdintasunei eta indarkeriei aurre hartzeko funtsezko tresna gisa, batez ere gazteenen artean, betiere teoria eta historia feministari balioa emanez.

- **Mugimendu feministaren eta elkartegintzaren lana aitortzea eta babestea**, kohesio sozialari, justiziarri eta demokrasiari egindako ekarpen historikoa eta egungoa baloratuz.

Ekintza horiek guztiek Nafarroa bidezkoagoa, berdintasunezkoagoa eta demokratikoagoa eraikitzen lagunduko dute, konkistatutako eskubideen defentsarekin eta hedapenarekin konprometitua. Izan ere, gaur egun eskubideez eta askatasunez gozatzen

aquí. Sin feminismo no hay democracia plena.

Gracias a él, HOY PODEMOS SER,
ESTAR, DECIR Y DECIDIR.

badugu, borroka kolektiboari esker da.
Feminismoak ekarri gintuen honaino.
Feminismorik gabe ez dago erabateko
demokraziarik.

Berari esker, GAUR IZAN, EGON,
ESAN ETA ERABAKI DEZAKEGU.

NOVENO.- ADHESIÓN A LA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL AYUNTAMIENTO DEL VALLE DE EGÜÉS ANTE EL HOMICIDIO DE UNA MUJER Y LA GRAVE AGRESIÓN A OTRA EN SARRIGUREN.	<u>BEDERATZIGARRENA.- EGUESIBARKO UDALAREN BATZEA EGUESIBARKO UDALAREN ADIERAZPENAREKIN, SARRIGURENEN EMAKUME BAT HIL ETA BESTE BATI ERASO LARRIA EGIN IZANAGATIK.</u>
--	---

Se procede a dar lectura al texto de la Declaración Institucional conjuntamente por parte de todos los grupos municipales.

Udal talde guztiek irakurri dute Adierazpen Instituzionalaren testua.

Lectura de la declaración institucional / Adierazpen instituzionalarena irakurketa (02:16:26)

ADHESIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE BARAÑÁIN A LA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL AYUNTAMIENTO DEL VALLE DE EGÜÉS ANTE EL HOMICIDIO DE UNA MUJER Y LA GRAVE AGRESIÓN A OTRA EN SARRIGUREN.

Ante el homicidio y la grave agresión ocurridos, el 20 de febrero en Sarriguren, donde dos mujeres fueron víctimas, una de ellas asesinada presuntamente por su marido en un caso de violencia machista y la otra herida de gravedad, a la espera de confirmación oficial, el Ayuntamiento de Barañain se adhiere a la declaración institucional aprobada en el Ayuntamiento del Valle de Egüés para denunciar todas las expresiones de violencia machista contra las mujeres:

BARAÑAINGO UDALAREN BATZEA EGUESIBARKO UDALAREN ADIERAZPENAREKIN, SARRIGURENEN EMAKUME BAT HIL ETA BESTE BATI ERASO LARRIA EGIN IZANAGATIK

Sarrigurenen otsailaren 20an gertatutako hilketa eta eraso larria direla eta —non bi emakume biktima izan ziren, horietako bat, ustez, bere senarrak hilda eta bestea larri zauritua, oraindik ere baieztapen ofizialaren zain—, Barañaingo Udalak bat egiten du Eguesibarko Udalak onartutako adierazpen instituzionalarekin, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren adierazpen guztiak salatzeko:

1. El Ayuntamiento del Valle de Egüés quiere expresar su máxima repulsa y su más profunda indignación ante el asesinato de violencia machista conocido recientemente. Todas las formas de violencia contra las mujeres suponen un atentado a su integridad física y moral y, en consecuencia, una grave e intolerable vulneración de todos los derechos humanos, siendo el asesinato la expresión más grave del machismo y un problema social de primer orden que atenta contra la dignidad y la integridad física y moral, principalmente de las mujeres que la sufren y enfrentan.

2. El Ayuntamiento del Valle de Egüés traslada todo su apoyo y solidaridad a familiares y entorno cercano de las víctimas. El Ayuntamiento pone a su disposición los servicios municipales correspondientes y declara tres días de luto oficial en el municipio.

3. Así mismo, denuncia y rechazar rotundamente todas las violencias machistas que sufren las mujeres y recuerda a la ciudadanía que son expresión de la desigualdad entre mujeres y hombres que aún impera en nuestra sociedad.

4. Reitera su compromiso por conseguir una sociedad más justa e igualitaria desarrollando en el ámbito de sus competencias y en aplicación de la legislación vigente, políticas activas, integrales y coordinadas a favor de la igualdad y en contra de todas las violencias ejercidas contra las mujeres.

5. Y hace un llamamiento a la ciudadanía a jugar un papel activo en la lucha contra la violencia hacia las mujeres. Es responsabilidad de todas y todos posicionarnos activamente ante cualquier expresión de

1. Eguesibarko Udalak bere gaitzespenik handiena eta sumindurarik sakonena adierazi nahi ditu berriki ezagututako indarkeria matxistaren hilketaren aurrean. Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak emakumeen osotasun fisiko eta moralaren aurkako erasoak dira, eta, ondorioz, giza eskubide guztien urraketa larri eta onartezina. Hilketaren matxismoaren adierazpenik larriena da, eta lehen mailako arazo soziala, duintasunaren eta osotasun fisiko eta moralaren aurka egiten duena, batez ere hura jasaten duten eta aurre egiten dieten emakumeen duintasunaren eta osotasun fisiko eta moralaren aurka.

2. Eguesibarko Udalak babes eta elkartasun osoa helarazten die biktimen senideei eta ingurune hurbilari. Udalak bere esku jartzen ditu dagozkion udal zerbitzuak eta hiru dolu-egun izendatzen ditu udalerrian.

3. Era berean, erabat salatzen eta gaitzesten ditu emakumeek jasaten dituzten indarkeria matxista guztiak, eta herritarrei gogorarazten diegure gizartean oraindik nagusi den emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren adierazgarri direla.

4. Gizarte bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa lortzeko konpromisoa berresten du, bere eskumenen esparruan eta indarrean dagoen legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurka erabilitako indarkeria guztien aurkako politika aktibo, integral eta koordinatuak garatuz.

5. Eta herritarrei dei egiten die emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borrokan zeregin aktiboa izan dezaten. Guztion erantzukizuna da emakumeen aurkako edozein indarkeria-adierazpenen aurrean jarrera aktiboa

violencia contra las mujeres, no consintiéndola, no permaneciendo en silencio y mostrando nuestro apoyo a quienes la hayan sufrido; en definitiva, adoptando una responsabilidad individual y colectiva frente a las agresiones machistas.

Por todo ello, el Ayuntamiento de Barañain manifiesta el más absoluto rechazo de esta violencia machista ocurrida en Sarriguren el pasado sábado 20 de febrero, y convoca una concentración de condena y repulsa para visibilizar el rechazo colectivo a este tipo de actos, el día 26 de febrero, jueves, a las 12.00h en el Ayuntamiento, a la que llama a participar a toda la ciudadanía y asociaciones.

izatea, eta ez onartzea, isilik ez egotea eta indarkeria jasan dutenei gure babesa adieraztea; azken batean, eraso matxisten aurrean erantzukizun indibidual eta kolektiboa hartzea.

Hori guztia dela eta, Barañaingo Udalak bere gaitzespenik irmoena adierazten du joan den otsailaren 20an Sarrigurenen gertatutako indarkeria matxistaren aurrean, eta gaitzespen- eta errefusa-kontzentziora deitzen du, mota honetako ekintzekiko gaitzespen kolektiboa ikusgai egiteko. Elkarretaratzea otsailaren 26an izango da, ostegunean, 12:00etan, Udaletxean, eta herritar eta elkarte guztiak bertan parte hartzera gonbidatzen ditu.

DÉCIMO.- RESOLUCIONES E INFORMES DE ALCALDÍA	HAMARGARRENA.- ALKATEAREN EBAZPENAK ETA TXOSTENAK
---	--

Se da cuenta al Pleno, de conformidad al artículo 42 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, de las Resoluciones de Alcaldía dictadas desde la última Sesión Ordinaria, que comprenden las resoluciones numeradas 82 a 145.

Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikularekin bat etorriz, Osoko Bilkurari azken ohiko bilkuratik emandako alkatetza-ebazpenen berri eman zaio, 82tik 145 zenbakirainoko ebazpenak.

El grupo municipal Geroa Bai, a través de su portavoz, solicita información de las resoluciones de alcaldía 91, 112, 128 y 145.

Geroa Bai udal taldeak, bere bozeramailearen bitartez, 91, 112, 128 eta zenbakidun ebazpenei buruzko informazioa eskatu du.

DÉCIMO PRIMERO.- ACTAS DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL	<u>HAMAIKAGARRENA.- TOKIKO GOBERNU BATZORDEKO AKTAK</u>
---	--

Se da cuenta al Pleno, de conformidad al artículo 42 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, de las actas de la Junta de Gobierno Local al actuar por delegación de la alcaldía, aprobadas desde la última Sesión Ordinaria. Acta de la sesión ordinaria de la Junta de Gobierno Local de fecha 26 de enero de 2026.

Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikularekin bat etorriz, Osoko Bilkurari Tokiko Gobernu Batzordearen akten berri eman zaio, alkatetzak eskuordetuta jardutean, azken ohiko bilkuratik onartutakoak. 2026ko urtarrilaren 26ko ohiko Tokiko Batzarren akta, hain zuzen ere.

Resoluciones e informes de alcaldía y actas Junta de Gobierno Local

Alkatearen ebazpenak eta txostenak eta Tokiko Gobernu Batzordeko aktak

(02:23:16)

DÉCIMO SEGUNDO.- RUEGOS Y PREGUNTAS	<u>HAMABIGARRENA.- GALDERAK ETA ESKAERAK.</u>
--	--

Ruegos y preguntas / Galderak eta eskaerak (02:23:30)

Don Jesús Emilio Sánchez Díaz, portavoz del grupo municipal PP y don Javier Andújar Alcolea concejal del grupo municipal UPN, abandonan la sesión durante este punto del orden del día.

Jesús Emilio Sánchez Díaz jaunak, PP udal taldearen bozeramailea eta Javier Andujar Alcolea jaunak, UPN udal-taldearen zinegotzia, gai hau burutzen ari diren bitartean, saioa utzi dute.

A continuación la señora presidenta levanta la sesión, siendo las 12 horas y 33 minutos, de la que se extiende la presente acta, firmada por la alcaldesa y el secretario accidental.

Jarraian, lehendakariak amaitutzat eman du saioa, 12:33an, eta akta hau egin da, alkateak eta behin-behineko idazkariak sinatuta.